

## HIRIA ETA EMAKUMEA EGITASMOKO PARTAIDEAK MINTZO

### Emi Garcia Gonzalez

Emi Garcia Altzako lan taldean dihardu.

*"Alta hirigintzaren aldetik, penagarria da. Orohar, ekipamendu publikoak falta dira, esaterako, plazak. Gainera, adinduentzako zentru bat behar dugu"*, dio.

Gauzak horrela, Altzan egingo diren etxebizitza sustapen berrietan jenero perspektibari erreparatu behar zaiola deritzo. *"Ez dugu lotarako auzo bat nahi, zerbitzu eta ekipamendu duineko auzoa baizik"*, diosku etxe-koandreak.

Orain arte hainbat eskaera egin dituzte udaletxean. *"Estoldekin arazo larria genuen, baina konpondu dugu. Hala ere, badira erantzunik jaso ez duten eskakarak: Txapinene plaza handitzea, esaterako"* aipatu du Emik.



### Mari Pepa Apeztegia

Mari Pepa Amarako taldean ari da. Dioenez, auzo horretako emakumeek ere oztopo ugari aurkitzen dituzte beren eguneroko zereginetan. *"Adibidez, San Rokera joateko egoera kaskarrean dauden hainbat eta hainbat eskailera igo behar dira"*.

Beste hainbat puntu beltz ere aipatu dizkigu aisialdi munduan lanean ari den amatararrak. *"San Bartolomeko egitasmoarekin auzoa erabat aldatuko da. Bitartean, hainbat toki, Arroka kalea esaterako, guttiz utzita daude: iluntasunean, zikin zikin eginda eta abar. Emakume askok beldurra izaten dugu bertatik igarotzean. Bestalde, aipatu egitasmoa dela eta, familia askok ez dakite oraindik nora joango diren bizitzera"*, esan digu Mari Pepik.

### Inma Rizo

Egiako emakumeentzat lurrazpiko pasabidea da auzoko toki eztabaidagarriena, toki ilunena.

*"Orain arte erdipurdiko irtenbideak besterik ez dizkigute eman. Besteak beste, goiko pasabidea konpondu dute, baina oso jende gutxi joaten da bertatik, eskailera ugari igo behar dira eta"*, dio Inma Rizo Egiako taldeko kideak.

Egiako hirigintza hutsuneen zerrenda ez da hor amaitzen: *"Plaza Haundin ez dago itzala ematen duen zuhaitz bakar bat ere, eta eserlekuak ez dira batere seguruak. Iruresoro plazaren egoera, berriz, penagarria da"*, esan digu Inmak.

Bere aburuz, Egiako erdialdeko auzo utziena da. *"Adibide franko dago: pasabidea, kaleetan aurki daitezkeen zulo eta zoko ilunak... Hala ere, Udalak ezentzuzaren egiten du"* aipatu du.



### Eva Martinez

Eva Martinez Intxaurrendoko taldeko kidearen ustez, *"ez dituzte gure proposamenak serio hartzen"*.

Salbuespenak badira, esaterako, duela urte batzuk Luistarren hiribideko barandak konpontzea eskatu zuten. *"Arrisku handia zegoen arren, aurrekontu faltaren aitzakiaz, urte t'erdia igaro zen barandila jarri zuten arte. Kontxako baranda berritzeko, aldiz, beti egoten da dirua"* esan digu irakaskuntzan diharduen emakume horrek.

Hirigintzari dagokionez, Intxaurrendoko hankamotz omen dabil: *"Lizardi aldaparen kasua da adierazgarriena. Aldapa handia da. Goian ikastola dago. Hala ere, espaloiak txikiak dira eta lehentasuna ematen zaie kotxei. Beraz, bertan ez dago lasai ibiltzerik"* dio Evak.

ne fisiko publikoak eragozpenak sortzen dizkie emakumei: iristeko zailtasunak, deserosotasuna eta batik bat, segurtasun eza.

### Hutsune nagusiak

Orain arte lan taldeek tokian tokiko arazoei aurre egiteko hainbat gai mahaigai-

neratu dituzte. Horien artean, garraioaren eraginkortasunak berebiziko garrantzia du.

*"Garraio publikoa erabil-*

*tzen dutenen % 70 emakumeak dira. Beraz, zerbitzu hori emakumeen beharretara egokitu behar da. Hainbat proposamen egin ditugu: haurren*